

Año LVI. urtea

137 - 2024

Urtarrila-ekaina

Enero-junio



# FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

---

*Varia.*

Almadiak Zaraitzu eta  
Ezka ibaietan barrena  
XX. mendearen lehen  
erdian: euskarazko  
lekukotasunak

Koldo Artola

---

# Sumario / Aurkibidea

## Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LVI. urtea - N.º 137. zk. - 2024

Urtarrila-ekaina / Enero-junio

### ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Aproximación a la etimología de <i>Irulegi</i> y al origen del final <i>-legi</i> Patxi Salaberri Zaratiegi, Iker Salaberri Izko	9
The division of labour between the Basque articles in the indefinite domain Silvie Strauss	39
<i>Elze estalquia</i> y otras antiguas injurias vascas Josu M. Zulaika Hernández	69
<i>Gernikaren ekfrasiak Harkaitz Canoren Belarraren ahoan</i> Leire Iruretagoiena Goikoetxea	93
Etorkizuneko irakasleak eta euskara: identitate eta ikuspegi linguistikoak aztergai Mikel Gartziarena	111
Memoriaren arrastoa euskal HGLn. <i>Gerrak ez du izenik</i> albumaren azterketa Amaia Serrano-Mariezkurrena, Ursula Luna, Nerea Permach, Berta Echeberria	137
Sudurkaritasun fonologikoa Larrainen: /h̃/ bai, baina bokalik ez Iñigo Urrestarazu-Porta, Andrea García-Covelo, Ander Egurtzegi	163
Euskal ondare lirikoaren berregitea Sarrionandiaren lanetan: herri-genero neurtuak Ane Arandia Morgaetxebarria	191

# Sumario / Aurkibidea

ERRESEINAK / RESEÑAS / REVIEWS 227

---

VARIA

Azentua eta hasperena: QED  
José Ignacio Hualde 235

---

Almadiak Zaraitzu eta Ezka ibaietan barrena XX. mendearen lehen erdian:  
euskarazko lekukotasunak  
Koldo Artola 243

---

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales /  
Rules for the submission of originals 315

---

# Almadiak Zaraitzu eta Ezka ibaietan barrena XX. mendearen lehen erdian: euskarazko lekukotasunak

---

Almadías por los ríos Salazar y Esca en la primera mitad del siglo XX: testimonios en euskera

---

Rafts on the Salazar and Esca rivers in the first half of the 20th century: testimonies in Basque

---

Koldo Artola

Etnografia Saila-Aranzadi Zientzia Elkartea

kmartola@gmail.com

<https://orcid.org/0000-0001-5139-3658>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv137.11>

Gure berriemaileekin dugun zorra ordainezina da, guztiek ere gure saiakeretan goxoki artatuz geure gogoa asetzeko ahaleginak egin baitzituzten egundoko borondatea erakutsiz. Eskerrik asko, orobat, Eunate eta Xabier alaba-semeei, aurrenekoari testuak neurritz egokitzean eta audioen kontuko saltsan laguntza bikaina emateagatik, eta bigarrenari, lana irakurri eta hainbat ohar egiteagatik.

## LABURPENA

XX. mendearen lehen erdian amaitu zen Zaraitzun eta Erronkaribarren (Nafarroa) egurra almadien bidez errekan behera garraiatzeko ohitura. Lan hori nola egiten zen hobeki ezagutzeko, duela hamarkada zenbait ibar horietako zenbait biztanleri egingdako grabaketetatik ateratako etnotestuak bildu ditut artikulu honetara. Gainera, lekukotasun gehienak euskarazkoak eta argitaragabeak baitira, hango mintzo jadanik desagertua aztertzeko ere garrantzi handikoak ditugu.

**Gako hitzak:** Zaraitzu; Erronkaribar; almadiak; XX. mendea; euskara.

## RESUMEN

En la primera mitad del siglo XX desapareció en Salazar y Roncal (Navarra) la costumbre de transportar madera por el río en almadias. A fin de conocer mejor cómo se realizaba ese trabajo, en este artículo he recogido una serie de etnotextos extraídos de las grabaciones hechas hace unas décadas a varios habitantes de esos valles. Además, como la mayoría de testimonios son inéditos y en lengua vasca, resultan de gran importancia para el estudio de la variedad lingüística de la zona, hoy ya extinta.

**Palabras clave:** Salazar; Roncal; almadias; siglo XX; euskera.

## ABSTRACT

The custom of transporting wood along the river in rafts disappeared in Salazar and Roncal (Navarra) in the first half of the 20th century. In order to better understand how this work was carried out, in this article I present a series of ethnotexts of inhabitants of those valleys recorded a few decades ago. Furthermore, as most of the testimonies are in Basque and they have not been published, they are important for the study of the linguistic variety of the area, which is now extinct.

**Keywords:** Salazar; Roncal; rafts; 20th century; Basque.

1. ATARIKOA. 2. IRIZPIDE METODOLOGIKO BATZUK. 3. OHARRAK, HITZ BEREZIAK, AKATSAK, GABEZIAK ETA BESTE. 4. TRANSKRIPZIOEIBURUZKO OHARRAK. 5. PASARTEAK. 5.1. Jaurrieta. 5.2. Espartza. 5.3. Orontze. 5.4. Ezkaroze. 5.5. Otsagabia. 5.6. Bidankoze. 5.7. Izaba. 5.8. Uztarroze. 5.9. Etulain. 6. ERREFERENTZIAK.

## 1. ATARIKOA

Euskal Pirinioetako Zaraitzun eta Erronkaribarren, XVI. mendez gero, antza, almagintza jarduera premiatsuenetariko bat izan zen. Enborrak mendietan behera jaitsi eta, erreka bazterretan egokitu eta josi ostean, aipatu ibaietan barrena garraiatzen ziren, Irunberri eta Zangoza aldera lehenik, eta Erriberako Tuterara eta Zaragozara ondoren, inoiz Mediterraneoko bazterretara ere heltzeraino, hura saltzeko xedez. Artzaintza eta horri loturiko altxonbideen tradizioa ere burura datozkigu ibarrotako biztanleen jarduera berezi bezain garrantzitsutzat; horrek, neurri handi batean, Erribera aldeko Bardean isla izan du.

Iragan 70eko hamarkadako udaldietan Izaban familiarekin egun batzuk igaro ohi genituela baliatuz, almadiei buruzko gure lehen galderak egiten hasi ginen, Izaban eta Otsagabian aurrenik, baita geroagoko urtetan bi ibarrotako beste zenbait herritan ere, azken saioa 2003an, Bidankoze barnealde herrian, egin genuen arte. Berriemaileen artean baziren, Zaraitzu ibarreko Espartza eta Orontze herrietan, garai batean almagintza izanagatik informazio zabala eskaini zuten eskarmentu handiko gizon euskaldunak, eta gaia gutxi-gehiago ezagutzen zuten adin handiko andere zein gizonak ere bai.

Lan honetara, orain, testuok bildu zirenetatik urte asko igaro badira ere, haien lekukotasuna ekarri nahi izan dugu orri hauetara, beretan ageri baitira, iragan mendearen erdi aldean –1952. urtean zehazki– guztiz desagertu zen jarduera horren nondik norakoez gainera, almadiei berei buruzko hainbat kontu eta zehaztasun jakingarri ere. Almadiak aienatu eta handik urte batzuetara, mende amaierarekin bat gutxi gorabehera, eginkizun horretan aritutako azken agure zaraitzuarren heriotza gertatu zen, beren euskararen galerarekin bateratsu. Hartara, lekukotzen balio etnografikoaz gain,

linguistikoa ere aipatu behar da, gaur egun itzalita dauden Erronkaribarko eta Zaraitzuko mintzoen erakusgarri –hein handi batean argitaragabeak– baitira.

Hortaz, bada, grabazioak batera bildu eta prestatu ditugu idatzizko eran zein audio euskarrian, izanen baita ibar horietako gaurko gazte jendearen artean, adin kontua dela-eta, norbere aitona-amonak –edo agian, jada, birraitona-amonak– ezagutzerik ez izan arren, haien esanak irakurri eta are beraien ahotsa aditu ahal izango duenik. Pozteaz gainera, hunkituko denik ere izanen da, arauz.

1971. urtea gogoan, almadia-jaitsiera baten erakustaldia prestatu zuten Burgin belau-naldi berriko jendeari jardueraren berri emateko, gerora, denboraren etorrian, gorpuztu eta finkatu dena. Almadia Burgitik gora, sei kilometrora-edo, La Bochuela deituriko inguruan askatu zuten. Eginahal horretan zeudela, laguntzea egokitu zitzaigunez, sirga edo soka batetik tira eginda, gure esku zaildu gabeak haren burdinazko harien karexa ezagutu zuen ederki. Gogoan dugu, halaber, Burgiko zubi ospetsuaren aurrean egin genuen hiru hilabeteko alabatxoaren argazkia, ikerle handia eta adiskide izan genuen Luis Pedro Peña Santiagoren besoetan ageri denekoa.

## 2. IRIZPIDE METODOLOGIKO BATZUK

Datu biltzen ibili ginen denboran, gure helburu nagusia berriemaileak mintzaraztea izan zen, hauek guztiak euskara desagertzeko ataka lazgarrian zeuden herrietako honda-lagunak izaki, eta ez, horrenbeste, ikerketa etnografiko zehatz eta sakona egitea. Horregatik, bada, biltzea guztiz mereziko zuketzen gai batzuk maiz galdetu gabe edo doi-doi galdetuta geratuko ginen, baina tira, dagoena dago eta horrekin egin dugu aurrera.

Egia da datuak biltzeko ahaleginetan aritu izaniko urteetan egin genituen galdera askok, behin eta berriz errepikatu izanaren ondorioz, erantzun berdin xamarak erakarri zituztela, baina, hori hala izanik ere, ez ditugu alboratu, zeren inoiz, erantzunotan, aurrez adituriko kontatera batzuekin batera, itxaron gabeko eta, horrenbestez, gai berrietarako harien bat azaleratu ohi baita, gaia zabaltzeko eta aberasteko iturria suertaturik. Uztarrozen gertatu zitzaigun hori, batez ere, ia hamabost urte luzez berriemaile bakar bati sei aldiz galdekaturik.

Lan honetara bildutako testu batzuk *Fontes Linguae Vasconum* aldizkari honetan berean –osoki edo zatika– lehenago argitaratu bagenituen ere (ikus 1. eranskina), orain, euskarri egokiagoa baliatuz, berrikusi eta hobetu ditugu, zer zuzendu behar dezenterik baitzen, grabazio batzuen kalitatea, damurik, txarra zen eta. Gainera, oraingoan, testuen transkripzioez gain, grabaketak entzuteko aukera dago, Euskarabidearen *Nafarroako Euskararen Mediatekan* audio-artxiboak sareratu baitira.

Lekukoekiko harremanetan erabili genuen hizketa modua, haien mintzaitetara hurbiltzen saiatzeko erabilia, aldatu egin dugu orain testuak hona ekartzean, haienak propioak zirenetatik behar bezala bereizteko, batetik, eta geure galderetan egin akatsak zuzentzeko ere bai, bestetik.

Azkenik, gaiari buruz idatzi dutenen artean bi izen aipatuko ditugu jarraian: Félix Sanz Zabalza burgiarrarena eta Juan Cruz Labeaga Mendiola vianarrarena. Horiek egin balio etnografiko handiko iruzkin asko ekarri dugu hona, oin-oharren bidez, balizko interesduna gaiaren aurrean kokatzen laguntzeko.

### 3. OHARRAK, HITZ BEREZIAK, AKATSAK, GABEZIAK ETA BESTE

Oin-oharrak erabili ditugu geuk, halaber, aditzen ohiturik ez gauden bi ibarrotako adizkera batzuen esanahia argitzen laguntzeko balio baitezakete, agian, euskarak duela jada urte mordoia ikastoletan-eta ezagutu duen berreskurapen gogoia agerikoa izatean, gaurko gazteria orri hauetan murgiltzera anima dadin, audioen laguntza ezin egokia-goia baliaturik.

Horri guztiari hitz mordoxka pare bat gehitu diogu, aztergai ditugun bi eremuetatik kanpo aditu ez edo gutxi aditzen diren hitzek osatuak, haietariko batzuk bi ibarrotan erabiliak izan badira ere.

Hona, lehenik, Zaraitzu aldeko batzuk:

*abari, abaldu*: afari, afaldu  
*akaitu*: nekatu  
*aldamorzu*: hamarretako  
*altzin*: aurre  
*apal*: behera, beheiti  
*arabez*: segur aski  
*atze*: ahantzi, ahaztu  
*auña*: antxumea  
*azkarki*: gogorki  
*bage*: gabe  
*berzañez*: bertzenaz, bestela  
*bortu*: mendate  
*deago, yago*: gehiago  
*deatu, daitu*: deitu  
*egotzi*: bota  
*eitzi, eutzi*: utzi  
*ebili, elebi, elbi, elbili*: ibili  
*edeki*: iriki  
*edoki*: eduki  
*eragui*: ekarri  
*erauntsi*: erautsi, jautsarazi  
*elki*: irten, atera  
*eseri*: ezarri, jarri

*fan*: joan  
*gibel, gible*: atze  
*igare*: igaro  
*iragon*: irau  
*izaundu*: ezagutu  
*kalkatu*: trinkotu  
*korla*: horrela  
*mirigin*: mira egin, behatu  
*mittika bat*: pixka bat  
*ogatze*: ohatze, ohe  
*ordai*: ordeko  
*ordoki*: ordeka  
*oritu*: oroitu, gogoratu  
*sautsi, sauntsi, sountsi*: jaitsi  
*sosi, xoxi*: josi  
*txopare*: makaldi  
*ugalde, erreka*: ibai  
*urran*: hur, hurbil  
*xako*: zahato  
*xaz*: iaz  
*xin*: etorri  
*xurrutatu*: urez elikatu  
*xilo*: zulo

Nominatiboan, *-az* bukatu-rik *almadia, erreka, presa, gauza, txula...* moduko hitzek (gehienetan erdal maileguak), *-ra* dute singularreko artikulutzat: *alabara, almadiara,*



*errekara, gauzara, presara, txulara...* hots, *alabara fan da*: ergatiboan, ordea, *-k* har-tzen du zuzenean: *alabak xan du*.

Adlatibo singularrean *-ala* dugu: *almadiala, ataderoala, ugaldiala, zubiala...* eta baita *Ebroala* ere. Herri izenekin, baina, *-(e)ra* aditu dugu gehienik: *Agoitzera, Sar-tzera, Ustaizera...* kasu.

Ablatiboko morfeman *-tik* eta *-rik*, biak ditugu, lehena ohiko izenekin nagusiki: *erri-tik, menditik, zubitik...* eta herri izenekin maizago bigarrena: *Gorzarik, Uskarzerik, Ilunberririk*. Bestelako adibideak baditugu halere: *zubietarik* eta *ugalderik*, alde bate-tik, eta *Kasedatik* eta *Arbaiunetik*, bestetik.

Jatorria adierazteko, halaber, *-rik* baliatu izan da maiz *-ko* atzizkiaren ordez: *ama [zen] etse kontarik; aita Orontzerik*.

Muga-adlatiboan, *-(r)año* dugu ohiki: *goitiaño, ugaldeaño, Xartzeraño...* inoiz *-t* bat erantsita: *kartañot, Sartzerañot* eta *Zaragozarañot*. Haatik, *-(r)artio* ere oso ageri-koa da: *berotu artio, irakitu artio, Agoitzerartio, Zaragozarartio...* eta *-t* bat erantsita, *korrartiot* aditu dugu orobat.

Sinkopak ohikoak dira: *almadietra, bazterretra, egitra, ermatra, guzietra, kontra* eta *kartra, Tutra*. Partizipioko *tu* + *-rik* kasuetan zerturiko emaitza, *-trik* dugu: *akaitrik, biurtrik, bustrik...*

Hona, berriz, Erronkaribarko beste hitz batzuk, gehienak uztarroztarrak:

*aigari*: afari  
*aintzin*: aurre  
*amintto bat*: pixka bat  
*apal*: behera, beheiti  
*atzeman*: harrapatu  
*atzetu, azetu*: ahantzi, ahaztu  
*atziri, atzeri*: atze, gibel  
*azkatu*: altxatu, goratu; jaiki  
*banak*: batzuk  
*bapana*: norbera  
*baratu*: gelditu, geratu  
*betik*: beti  
*egutxa, eguatxa*: ibai  
*eguartu*: ohartu, gogoratu  
*ele egin, ele erran*: hitz egin  
*emon*: eman  
*entelegatu*: ulertu  
*eragu*: ekarri  
*ereiki*: altxarazi  
*erkin*: irten, atera

*galtu*: galdu  
*gentu*: kendu  
*gibel*: atze, atzealde  
*igan*: igo  
*igare, igari*: igaro, iragan  
*izaguntu*: ezagutu  
*izari, izarri*: ezarri, paratu  
*karrika*: kalea  
*lotetu*: lotu  
*lotsa*: beldur  
*lotu*: lo egin  
*mazte*: emakume  
*morroi*: mutiko  
*ño, ñottoa*: txiki, oso ttiki  
*obro*: gehiago  
*oltu*: bidali, uxatu  
*orio*: olio  
*soto*: zalditegi  
*txiki*: gutxi  
*txokarratu*: kiskali

<i>xa</i> : jada(nik)	<i>xuntatu</i> : bateratu, elkartu
<i>xaitsi</i> : jaitsi, beheratu	<i>zamari</i> : zaldi
<i>xatetu</i> : garbitu	<i>zanko</i> : oin
<i>xaz</i> : iaz	<i>zauzi, dauzi</i> : jauzi
<i>xin</i> : etorri	

Nominatiboan, *-a* batez bukaturiko *balsa*, *eguatxa*, *jarzia*, *presa*, *soga*, *tranka*... gisako hitzek (gehienetan erdal maileguak) *-á* dute singularreko artikulutzat: *alabá*, *eguatxá*, *jarziá*, *presá*, *sogá*, *tranká*, alegia; *xin da alabá*.

Uztarrozeko testuetan horrelako egoeran dauden hitzak asko direnez, azentu-marka jarri diegu berezitasun hori argiro islatzeko.

Aditzetan ohikotasuna erakusten duten *-ten/-tzen* bukaerak *-tan* ditugu hemen: *ebiltan*, *egoixtan*, *erraitan*, *galtan*, *xoaitan*...

Adlatiboan *-ara* dugu: *etsiara*, *gainiara*, *lurriara*, *peara*, *San Sebastianara*.

Muga-adlatiboan *-(d)raino* dakusagu Uztarrozen: *errotaradraino*, *noradraino*, *Tortosaradraino*, *Zaragoza(d)raino*... baina *-(d)reino* Izaban: *Zarakozaradreino*.

Sinkopak ohikoak dira hemen ere: *askaltra* eta *baskaltra*, *bazterretra*, *bagitra*<sup>1</sup>, *kortra* eta *kartra*, *Onzibietra*, *trabajatra*. Uztarrozen, partizipioko *-tu + rik* kasuetan bildu dugun emaitza *-tuk* da: *bellotuk*, *bordaltuk*, *zartuk*... Inoiz, halere, *-turuk* aditu uste izan dugu: *kruzaturuk*<sup>2</sup>.

Ikustekoa da, bestalde, hondarreko euskaldun hauek zeinen barneraturik zeukaten jada erdal hitz eta esamoldeen txertaketa bai eta horien ondoriozko eragina beren euskarazko mintzaira naturalean ere. Hona adibide batzuk:

- Dionisia Garate (Espartza): *También eiten die en Roncal, bai, jarzia*.
- Lucas Senberioiz (Espartza): *badaude amalaur edo más zur // ataderoa? lekua donde, ya kan, egiten baitzen almadia*.
- Nicolas Elarre (Espartza): *Eta kortik, joaten? Kaparrosera, después... Tudelarik eta, ¡hasta Tortosa!*
- Fernando Rekalde (Espartza): *faten zen de maravilla*.

1 'Bagara' alegia, datu horren berriemaileak, inoiz, beste aldaera batzuk erabili bazituen ere: *biar xuánen gidrá Izábara; xuáitan bálín bagrá*... (Artola, 1991).

2 Izaban *-truk* eta *-tuk*, biak kurritzen ziren 1950eko hamarkadan, baina XX. mende hasieran Bidankozeko Mendigatxak *-truk* erakoak zerabiltzan soilik: *biltruk*, *lotsatruk*, *sartruk*.

- Pedro Pena (Orontze): *Baratu ta, por más que, por una vez...*
- Severo Azkoiti (Orontze): *ta gero berze bat giblian, tal como... laur, borz, xegun.*
- Sinfioriana Narbaiz (Ezkaroze): *pero, ya que zu izan baixa kain sincera...*
- Isidora Paskualena (Otsagabia): *Ta gero, a lo mejor, zer? igaretzen zun, pues...*
- Josefa Zoko (Otsagabia): *keben, bai, tal como Iratin ez.*
- Antonia Anaut (Izaba): *xako bat ardau, ta buena alforja, ta...*
- Fidela Bernat (Uztarroze): *Bai, más o menos; erraitan zein, orai, gizon kori xoaitan dena, ¿hasta cuatro kilómetros? pues kantik...*

#### 4. TRANSKRIPZIOEI BURUZKO OHARRAK

Testuak hona ekartzean aldian-aldian aditu uste izanikoa idatzi dugu, sarri askotan zalantzak izan baditugu ere. Horietarik batzuk, edo nahi bezain garbi aditu ez edo beren esanahia antzeman ez dugulako, parentesi barruko etenpuntuez ezkutatu ditugu edo, bestela, galdera-ikurren bidez adierazi. Horrez gainera, zenbait solasalditan hainbat berriemailek erdizka baizik ahoskatu ez zituzten silaba solte, erdi hitz eta abarren idazkera baztertu dugu, ezertan laguntzen ez duten trabak alboratzeko. Inoiz soberaxkoa iruditu zaiguna ere zokoratu egin dugu.

Inoiz ere, baina, erdizka baizik aditu gabeko hizkiren bat parentesi artean idatzi dugu, batere aditu gabeko bat edo bestea ere, hitza hobeki azaltze aldera, idatzi dugun bezala, eta antzera jokatu dugu ustezko bustidura erdiak-edo aditu uste izatean zein beste kasuren batean ere.

Gainera, bokal batzuen itxierak zein irekierak direla eta, aditu uste izan dugun *a* eta *e* artekoa ä idatzi dugu; *e* eta *i* artekoa ë; *o* eta *u* artekoa, ö. Inoiz, *i* eta *u* arteko bat aditu uste izan dugunean, ü idatzi dugu.

#### 5. PASARTEAK

##### 5.1. Jaurrieta

Carmelo Krutxaga Esarte<sup>3</sup>, 1899  
Gurasoak ere, biak *eaurtarrak*

<sup>3</sup> Ezkarozera ezkondu berriemaile honek herri honetan ikusi zituen almadiak, bere jaioterrian ez baitziren uretaratzen.

## 1. Almadien oroitzapena gogoan (1989)

Pasarte entzuteko:

<https://www.mediateka.eus/eu/fitxategiak/?id=121046>



– *Almadiekin-eta, ibili zara?*

Ez, ez-ez-ez-ez, ez, almadiak ez; ikusi bai, ura barna faten baia, ni eniz egon.

– *Nondik elkitzen, ateratzen ziren?*

Eeee! pues anitz erritarik.

– *Eaurtarik, Jaurrietatik ez...*

Bai, orai ere bai, elkitzen te, elkitzen dute, pero orai kamionean!

– *Baina almadiak ibiltzen zirenean, non soltatzten zituzten?*

Aaaa!... [gai izki ulerturik, nonbait] Erribran, Zaragoza ta Tudela... ta erri andi goitan.

– *Haraino faten, joaten ziren?*

Bai-bai-bai-bai-bai.

– *Bai, baina nondik ateratzen ziren, Eaurta beretik ala Ezkarozetik?*

Eskarozen, Otsagin...

– *Eaurtan ez...*

Eaurtan ez; Otsagin, Eskarozen, Orontzen, Esparzan, Sarriesen... ta Ibi(l)zietan; erri koetan guzietan, elkitzen zeen almadiak uretik, urea barna, vaya.

– *Zuk ikusi dituzu anitzetan?*

Bai-bai-bai-bai... ikux te, ikux t'ere... tta kola<sup>4</sup>.

### JAUURIETA

Javier Krutxaga Garate<sup>5</sup>, 1905

Aita: Jaurrieta / ama: Espartza

<sup>4</sup> Kora aditu uste dugu hor.

<sup>5</sup> Itzaltzura ezkondueriko berriemaiile honek ere, ziurrenik, almadiak Otsagabitik behera ikusiko zituen. Irunberriko agure-egoitzan izan genuen hizketalditxoaren bukaeran bertako langile baten ahotsa aditzen da Iruñeko festetan ohikoa den Astrainen *Riau-riau* famatua tarareatzen, egun horietako batean baikeunden.

## 2. Eaurtarrek almadien inguruko berri gutxi (1991)

Pasarte entzuteko:

<https://www.mediateka.eus/eu/fitxategiak/?id=121054>



– *Galdetu dizut ea ibili zaren almadietan.*

A!... almadiak bear du ura... izan igual, bestala ezta... mogitzen! ura geldik... urak bear du egon beti igual, yoan daen... almadiara, ohea, igual. Bena orai ezta egiten deus e, oai... kamionan? e! ez.

– *Baina zu ibili zara?*

Oai ezta deus iten.

– *Ez? eta denbora hartan ibili zinen?*

Ni ez, ezer, ez-ez-ez.

– *Baina ikusi bai...*

Nik bai, almadiak bai. Almadiak, au bezalako... kolaxe, axerik<sup>6</sup>, almadia, goi zea, kau, xoxeik<sup>7</sup>, ba... dena agarratr(u)ik... Je! ¡hombre! oai uskara, ejejeje!

– *Eta egin bai? egin dituzu almadiak zuk?*

Ez, nik eztut beteik kori, ez, ez-ez.

– *Ikusi, ikusi duzu egiten...*

Ikusi bai, bai.

– *Eta nola egiten zen?*

Ba! pues, aisa ongi ori, psss... au olaxe, berriz e, kala... Gero emen, klaro, kueroa... ba! xostzen. Kau duzu lemeziko... zura, lemeziko tzura. Au, agarratzen asi kolaxe? kala, zer da emen?... ta gero, gero, ala! erman.

### 5.2. Espartza

Dionisia Garate Otsoa, 1904

Aita: Espartza / ama: Otsagabia

6 Azkue (1905-1906/1969): *Axe*: 1° (BN-am-s, R, S), carga, montón, fajo: *charge, monceau, fagot*.

7 ‘Josirik’, alegia.

### 3. Ualdea anditzen zelarik egotz eta, ala! fan geinbera (1981)

Pasarte entzuteko:

<https://www.mediateka.eus/eu/fitxategiak/?id=121058>



– *Hemen izan dira almadieroak? ibar honetan? bai?*

Bai-bai.

– *Eta berori<sup>8</sup> oroitzen da nola jaisten ziren, ibaian barrena eta...?*

Bai, guziak, bai-bai, guziak... guziak-guziak.

– *Konta, konta beza nola egiten zituzten almadiak eta...*

Zetako bear dauzut kontatu? eztut orai ikusi... aspaldion!

– *Polita da jakitea nola... izeiak edo lerrak edo, zer ziren? zein egur klase zen?*

Lerra.

– *Lerra erraten zen hemen? ‘pino’, e?*

Lerra, bai-bai, lerra; uskaraz beti, lerra.

– *Eta haiek bota edo egotzi edo, nola erraten zen?*

Egotz... egotz, egotz.

– *Eta uhaldera, ibaira, nola eramaten zuten?*

Ugaldean tzen-, anditzen zelarik? ¡ya lo creo! igaretzen tzen bai, zubipetik, almadiak, almadiak.

– *Baina menditik edo oihanetik uhaldera, nola karriatzen zuten?*

Pues... abrekin, abrekin.

– *Abereekin, mandoekin eta...*

Mandoeki... eta gero, kan? pues... prestatzen zixien<sup>9</sup>, almadiak, ugalde bazterrean, egiten zixien eta gero... ualdea anditzen zelarik? pues orduan egotz eta ¡hala! fan geinbera.

– *Eta nola lotzen zituzten almadiak?*

Nola? nola lotzen zien?

– *Jarziak<sup>10</sup> edo, Erronkari aldean erraten dute ‘jarcia’...*

También eiten die en Roncal, bai, jarzia.

– *Abellanoa edo, urritza edo, nola erraten duzie?*

8 Gazt. ‘usted’, zaraitzuar-erronkarieraren gisan. Trataera horretan *ori* zein *orrek* erabili ohi ziren singularreko 3. pertsonako aditzekin. Hona adibideak: *Ori xin da* ‘Berori etorri da’, *Orrek xan du* ‘Berorrek jan du’.

9 ‘Prestatzen, egiten zituzten’, xukako errespetuzko alokutiboa.

10 Iribarren (1984): *Jarcia*. Vara de avellano retorcida, con la cual ligan las almadías [Roncal y Salazar].

Bai-bai-bai, urrutxa, urrutxez, urrutxez... urrutxez lotzen ztien<sup>11</sup>.

– *Eta noraino faten ziren?*

Pues... Zaragozarartio, bai-bai, bai-bai, llegatzen zen Zaragozara.

– *Hain beheitiraino?*

Eta kan... kan eizten ztien ya, almadiak.

– *Eta itzuli, nola? zangoz edo oinez edo...*

A! zangoz, zangoez, zangoen gañan, a! bai-bai-bai...

– *Orduan ez baitzen trenik eta ez deusik...*

Ez-ez, ez kotxerik ere, etzen deus ere ala denbora kaitan.

#### 4. *Kallesian bai; kor almadiatzen zen oaño, atzo, urte gutiz* (1982)<sup>12</sup>

Pasarte entzuteko:

<https://www.mediateka.eus/eu/fitxategiak/?id=121060>



– *Hemen egon nintzen azkenekoan, emaztearekin etorri nintzen; oroitzen al da?*

A! bai, egon zintzaetanez, bai-bai-bai.

– *Kontatu zuen berorrek almadieroak denbora batean nola jaisten ziren ibaian barrena...*

Bai, bai, bai.

– *Denbora haiek ere igarorik, e?*

¡Ya lo creo! denbra kaitan, ya lo creo.

– *Zenbat urte zituen horrek almadiak kendu zituztenean?*

Zomat urte egiñen du? bah! ogeit'amar? egiñen du<sup>13</sup>.

– *Edo gehiago, e? Esako pantanoa egin zenez geroztik...*

Ta eginen du urte yao, eztëa?... Kallesian<sup>14</sup> bai, kallesian eztu urte anitz.

– *Erronkariarrak, ez?*

Kallesian, bai; kor... almadiatzen zen oaño, atzo, urte gutiz, e? eiten du.

– *Berantago ezik hemen...*

Bai-bai, ezik keben, keben egiten du bai, ogeit'amar, yago-yago egiten du.

11 'Lotzen zituzten'. Aldi honetan, ordea, pluralgilea bai, baina alokutiboa ez zuen erabili berriemaileak.

12 Hizketaldi labur honetan Jose Antonio Azpiroz eta Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi* adiskideak izan genituen mintzalagun.

13 *Dut* aditu uste dugu hor, *du* idatzi badugu ere.

14 'Kalles ibarrean, Erronkariko ibarrean', alegia.

ESPARTZA

Lucas Senberoiz Roda, 1910

Aita: Espartza / ama: Ezkaroze

### 5. Almadien prestakuntza zehaztasunez emana (1991)

Pasartea entzuteko:

<https://www.mediатека.eus/eu/fitxategiak/?id=121063>



– *Galdetu nahi nizun: zuk ikusi duzu almadiatzen Zaraitzun?*

Bai, bai-bai.

– *Oroitzen zara nola egiten zuten?*

Bai.

– *Eta nondik nora faten ziren eta...*

Oooo!...

– *Hortaz ere kontatzen al duzu zerbait?*

Bai. Bueno pues, almadiak eiteko len... lenik eiten zen ler, lerra, ler; zurea ein bar zue. Zureak, aizkura batek eiten du.

– *Pikatu edo, bota edo egotzi edo...?*

Bueno, orai, por ejemplo, pues etzen ... juaten duk pelatrik zura, pero, orduan? obrak... Erribran, etxeak eiteko ta gauza kuek, pues faten zen ya kendik...

– *[‘Kendrik’ ulertuta] Azala edo? landrik? labrada...*

Bai, landrik, landrik zura. Bueno, gero? pues... manduekin, ‘macho’, mandueki, pues, ermaten zen, bide bat iten tzen ta kandik, lleatzen zen... ataderoala; ataderoa? lekua donde, ya kan, egiten baitzen almadia. Bueno, almadien egitako<sup>15</sup>, almadiak bear ttu... edo zurek, irur...

– *‘Balsa’ edo ‘tramo’ edo...*

Bai, tramo deatzen zen bai, baia... etzeen todas, guziak igual. Zur batzuk deatzen tzeen ‘sezen’, sei metro; bueno, zurak orduan negurtzen tzeen... bararekin, zortzi bara: sei metro zortzi bara; gero, bertze batzuk... ‘katorzen’, txikinago; ta berze batzuk ‘dozen’, dozen.

– *Dozen, oraino txikiagoa?*

Bai, dozena txikinago; bueno pues, eiten zren tramoak, batzuk... sezeneki; berze batzuk, berze batzuk? katorzeneki, ta berze batzuk? dozeneki. Bueno goenak, ya, luzea bear zakin bat[ek]. Ahora... anchura.

15 Bitxia da -tako hori Zaraitzun, Izaba-Uztarrozen ohikoa bazen ere.



– *Zabalera?*

Tramuak, batzun bere... negurrea, zabalea, orai e'oritzen, bi metro ta erdi'do irur metro... Egiten bazen zabalago, etzen, ugaldean, zomait lekure ezpaitzen igeratzen kan, ya... zabal, negurri kortako etzaie elbi e. Negurria bar tzen, an... luzean, juxtoa izan, e? Bueno pues, gero? zurak esertzen tzeen kala, por ejemplo, alor, alor bat ¿verdad? alorrean, ta zurak esertzen tzien ya, kalaxet, xunto, ta... bi puntetan eiten zen zilo bat, zure guzian. Bueno, por ejemplo, laur zureak? ta zilo bana, zure guzian. Orai, zure koek sujetatzeko... zetatikän? bago...

– *Urritza edo?*

Ez, bago... unas trancas<sup>16</sup> de haya... bagoa, cruzando todo el tramo; y a eso...

– *Segi, segi euskaraz...*

Ta, gero zu(r) koen lo-... coserlos, lotzeko... bazauden, bueno, eiten zen, euskeraz deatze-, nola deatzen den?

– *'Jarziak' edo...?*

Jarzia erdaraz, jarzia... urrutxez. Ta, urrutxak? por ejemplo, pues... bi metro ta erdi'do, izaten zen luze baia... ta asten zen punta meetik? eta, biurtzen zen ongi. Bueno, pues zertzen zen... bagoa, tranka kori? ta oai, estilo kortaik sartzen tzen bergara, ta buelta; gero<sup>17</sup> bertze bat, eta bertze bat, ta... Bueno pues, berga koek, berga ateatzen tzen, koekin lotzen tzen... erdaraz, 'barril' deatzen zitzeten; eztakit barril erdaraz zen o, euskaraz eztakit: barril, barril<sup>18</sup>.

– *Bai, tramoak lotzeko, ezta?*

Bai, tramoak lotzeko barrila. Ta gero, berga korrekin...

– *Bihurturik...*

Karreiatu. Eta gero, xuntatzeko tramo kau berz'korreki, bazauden bertze batzuk, deatzen zreen xintura<sup>19</sup>. Kurak e, zetän?... ez oroitzen; lerr e, urrutxe zen edo ez zen... ta, lotzen zeen biek, tramoak, xinturak, bi puntatan ta erdian. Bueno, lenik, tramok, klaro, egin tzrelari(k) ya, egozten ztien ugaldiala. Ugaldiala egozteko esertzen zien... ugaldea? bueno, kemen dago alorra ta ugaldia gor; bueno pues, ugaldia egozteko, zertzen tzeen zul batzuk kara, ta orduan, egoten zen tramo kor, ez zen ez...

– *Ez dadin joan?*

Pa que no llevase el río el tramo... lotzen zen pues, soga batekin, zombait, ler edo bago bazegon orillatu? Gero egozten zen bertze tramo bat, ta orduan xüntatzen tzeen biak xinturaeki, ta gero bertzia. Bueno, ya almadiara eginëk dao, ta gero? pues, remu at paratzen tzen; remua? pues, lemezi puntoan? ta berze at, az-... azkenean...

– *Bat aurrean eta beste bat atzean?*

16 Sanz Zabalza (1993): **Tranca**. Leño redondo y pulido de unos 7 cms. de diámetro y metro ochenta de largo, acabado en punta para apalancar cuerpos pesados. Era un utensilio de múltiples usos en los trabajos de la madera.

17 *Kuero* aditu uste dugu hor, dagoen testuinguruan dagoela *gero* idatzi badugu ere.

18 Sanz Zabalza (1993): **Barrel**. Leño de haya recto y limpio de unos ocho centímetros de diámetro y de la anchura de un tramo que servía de eje y soporte sobre el que se ataban los maderos. 2003ko ikustaldian horri buruzko zehaztasuna egin zuen Lucasek: «El barril más grueso; cruzaba todo el tramo».

19 Sanz Zabalza (1993): **Chintura**. Jarcia de chaparro retorcido, más gruesa que las vergas, que servía para unir un tramo con otro. Eta gure berriemaileak, 2003an, honela zehaztu zuen: «Madera delgada, bien retorcida, para sujetar los tramos».

Bai, seun, almadiak kan, bat baldin bazen, bueno... zurak, por ejemplo, tramu kontan, badaude amalaur edo más zur, orduan ematen tzen tramu bat... altzinean? ta bertze bat...

– *Remo, remo bat...*

Bai, remo at. Ahora, tramu... eo tramu kontan, badaude sei o zazpi zur solo? zeinaiduen al lodi? orduan bi tramo, edo... bi remo. Remoen xuntatzeko, iten tzen, tramuen... erdian, bi, bi zilo ta kan sartzen tzeen bi...

– *Bi estaka edo...*

Bi estaka, bai, eztaiz nun dan, ta kan, kalkatzen da remoa. Ta gero, remöa, ezpaitzen ez baztertzen, an, ba aniz lekutän pues etzen enpleatzen, segun nola zen ugaldia, pues orduan, gibla onë, eiten tzeen bezte batzu gaetan? ta kor esertzen tzen... anilla bat, vaya, urrutxez eginik, ta kan sartzen zien remoa.

Ta gero, lemeziko tramoan az-, edo bigarnean, ya azken e tramo ta azken puntan, esertzen tzen, pues tze? bi estaka kala gan, sartrik? ta kan, esertzen tzie(n) alporxeak, ta ola, espalderoak... Deatzen zen roperoa.

– *(Eztulka ari zela eta) Egon, egon, deskantsatu pixka bat...*

Korrek [zintzurak], kilikatzen!... Ahora, tramu at, beti, altzinean zen... mearragoa ezik azkenean. Konprenitu?

– *Bai, muturra aiseago igarotzeko...*

Bai, bueno, almadiara eginik dago, pues orai espera, ya ugaldia nola zen; badu... ur aski edo, sobra? seun, ya batzen negurria ere, uraeki, ugaldean. Ta nik, eni ere tokatu zaida, correr; nolak- tzien?... A! tramua? ez, erran zut antes, len; esertzen tzien zera: bagöa, ura artzen baitzen barne, ta, berga koekin biurtrik ka(n), lotzen tzen guzia. Ta gero, punta sub(r)atzen baitzen? kura guzia eiten zen kosido bat, deatzen baitzen estoka<sup>20</sup>, kosidoa.

– *Josirik?*

Bai, eta... ni? bi aldiz, Ibiz(t)a, gure... ugalde txikin bat, bat da, ta kan iten tzen, guk almadia...

– *Nola? Ibizara?*

A! Ibizra... ta gue erria.

– *A! ondoko herrira, ezta? Ibiltzietara?*

Bai, Ibiztara, ta kan xuntatzen zen, errian... ugalde andia igaretzen baitu, gure erritik igartzen dela, vamos, el... río Salazar. Erri kartañot? a! etzuen falta, etzuen falta remorik ta deus e... ugaldeañ mear, ta...

– *Eta fondo gutikoa...*

20 Berriemailea bera mintzo, 2002an, *estoka* dela-eta: «Ataban los maderos con las jarcias –en vasco xaros les llamaban–; se hacían unos au-, según la clase de madera que era: si era delgaö, un aujero; si era grueso el madero, dos. Se pasaban las jarcias por aquellos maderos y... pues se sobrarían, pues no sé, diez o veinte o treinta centímetros quedarían; lo que quedaba, de las jarcias o del xaro, que estaba retorcido aquello, se hacía la estoka que llamaban, que era un emparrilláö, conque vamos a decir, que ajuntaba todos los maderos del tramo, y después ya, aquellos emparrillaös servían para unir un tramo con el otro. Y... para unir un tramo con el otro, se empleaban las xinturas, y los tramos pa unir un madero con otro –no me acuerdo ya, qué medida tenían o qué anchura, los tramos– dependía, no se podía hacer como quería, porque había, por ejemplo, en [el río] Salazar, en el paso de Arbayún, había unas peñas, que había que pasar por entre las peñas, y ya tenía la medida justa; si tenía más anchura, ya no pasaba bien».

Bai, ta a lo mejor baratzen tzen... arri batëan, geratzen ta baratzen almadia bat; esperatu rato bat? ta... gibletik tzen ura, ezpaizake(n) igar? pues, berak e bulkatzen tzun. Bueno, bertzera, ellegatu...

– *Eta, bultzatzeko, zer egin bear zen? ibaira jaitsi tranka batzurekin? edo...*

Guk, nik erraten lekuan ez, ala esertzen zen... meartsu baitzen ugaldea, ur mear, pues, baratzen bazen... almadiara? geo gible, enbalsatzen ura, ezpaizake(n) igar, ta ya, gero, indarraekin, arrankatzen zen. Baia ugalde andian, gure berz errian, geratze (b) atzen, Saartzeko ondartzen baita... ugaldea, ya kordik faten tzire almadiak direkto Erribera... Xa an, paratzen bazen arri batean, ematen tzeen tranka batzuk, metro bat t'ardi edo... bida, e? ta, sartu ugaldean, ta tranka ta: «ernee!... ernee!...». Ta, ou! gure errian, zubitik mirez, ikusten nola, ta...

– *Mutikoak eta...?*

Bai, geuk, zubitik: «aupa!»... O! jenio batzur, ya almadieroak egoen tzien... klaro! bustrik, klaro. A! gero, llegatzen zelaik korra, ateratzen baita Arbaiun, da anitz gaixto kori, pues ez, ur gutxirekin etzaiken sar, anitzekin ere ez, ordaiak bazakien negurrëa, arri batzuk, arri... ori zen, bazterrean! ta kara ellegatzen zelaik ugaldia? bueno, ¡hala!... al pasar Arbayun.

– *Paso gaixtoa zen?*

Bai, bai, klaro, ba'an bai; izan duzu zomat... 'ahogar'?

– *Ito...*

Itotzen.

– *Bai? almadiatik erori eta han berean ito?*

Ez, ez, ez... pasu batzuk meak ta eztaike brinka!... Nik, izaundu tut an bizpur, itozten, korr eta, Orontzen ere bai, berze bat, presaren saltatu. Orduan, bazauden presa erri guzietan, bazauden presa bat, pues... erritan, bazen erri, erri guzietan o kasi guzietan, errota; errota? ta... bueno pues, presak, artzeko ura, errotzeko<sup>21</sup> ta, gero argia emateko're, ta... presa koen... saunsteko? klaro, presara zegon kala gora, ta ugaldea orduan? orduan iten tzen, zurekin, nola deatzen da? oai... kagoendiez!

– *Bueno, igual da, igual da...*

Len enitzan oroitzen pues, mira: por ejemplo, pues... au da presara goiti, ezta? orduan, pues ugaldean...

– *Bai, beheitiago.*

Orduan eiten zien jaraga (?).

– *Ranpa bat bezala, ezta?*

Ranpla bat?... erdaraz puerto<sup>22</sup> deatzen zen, eztaikit nola, igual da... ta kandik, Oronzen aurkitu; Uzkartzeko zen, almadieroa? sartu zen, ta etzuen ongi...

– *Ongi eraman edo?*

Bai, et'orrek o, betire, llega tzelaik abajo, remoak in tzakon<sup>23</sup> jesto, buelta bat? ta, emon<sup>24</sup> zuen ugaldiala, ta ito zen kan, ta, bere errian, aparezitu bereala. Ta gero? pues

21 Errotatzeko-edo? 'ehotzeko', antza.

22 Sanz Zabalza (1993): Puerto. Rampa de cemento inclinada de unos cinco metros de ancha por la que enfilaban las almadías para saltar las presas.

23 Zakon 'zion'.

24 Emon bitxia da Zaraitzun, Izaba-Uztarrozen ohikoa zen arren.

bueno, pues... lo egitra, lemeziko zomana den, nunbait turno bat artu Arbaiun? Irunberrira. Ahora, ongi xan ta edan bai, almadierok... ongi xatera! puerto...

– *Hor, roperoan<sup>25</sup> eramaten zutena?*

Bai, por ejemplo pues, aldamorzua ta bazkaria, baia... artsean, faten zen fondara, fondara ta...

– *Irunberrira?*

Bai, lenbeziko etapara Irunberrira, bai. Ta gero, kandik? pues-pues, klaro, turra<sup>26</sup> bustrik? bear zen txukatu ta bate. Bueno, ya almadieroak bazakien, guziek, berek, nola konpontzen beren defentsa. Ahora, gero abaldu ta... kasinoala bai, ¡buena copa ta buen vermut! eso bai. Gandik? pues, Zangozan zen, lemeziko... erria. An, bazen gure almagaztista bat ta karek erosten zuen zur; baëa, seun ze klase. Te gero? pues, kandik, río Aragón ya, pues Erribere guziti eta, baratzen zen erri, errietan ta, erri guzietan bazegon erostun bat, erostun bat; ta karek, bazuen, batzuen, pues... antes e...

– *Lehenago...*

Erranko<sup>27</sup> duu... sezen ta, katorzen ta, klaro! a lo mejor karek etxe baten iteko bar zuen, berze... berreun edo irureun zur, baia sezen, edo dozen edo katorzen, ta, erosten zuen ta bertzeak... Tutrera, ta... Zaragozara, Zaragozan.

– *Zaragozaraino, e?*

Bai, bai, bai, bai... Zaragozarik gizon, un (tal) Ekiza, erosten zuen zura, kasi guzia.

– *Eta gero, itzuli? zangoz, kotxez edo...?*

Jeh! no, ez, trenean, baia... Irunberriik gure erriala? izaun dut... oñez, oñez ta... alporxara? ta... gero bazkaltzen almagaztista? baratzen zelaik almagaztista? pues, por ejemplo, Irunberrira ateratu-de, ta fateko abaltzra ta lo eitza? almagaztista lotzen tzeen, pues... ugalde bazterretan bazauden, an, ta... almagaztista lotzeko ematen zen... sirga deatzen baitzen, baëa ez soga; alanbrez. Konke kura artu fardo bat? ta Irunberriik gure erriala, oñez; oi bai! A lo mejor, pues, geratzen zen ta: «bueno, tengo el autobús, Salacencia», baia igaririk edo... ez gastatzeagatik ere.

– *Erran duzunez, zenbait aldiz almagaztista ur txikietan tratatzen zen arroka batzuen kontra; horri nola erraten zaio? ‘amorratu’? Uztarrozeko andere bati horrela aditu bainion [...].*

Bai, bai, bai-bai-bai, bai. Eta, ez ugaldian solo! lerroietik, egozten zeelaik zurak, alorriala... mandueki, pues, a lo mejor, arri batean edo arbole batean ta... pegatuz, xotzen zeen zurak? ta: «ha amorraö; ha amurraö en el pino, ha amurraö en tal sitio».

– *Bai? eta euskaraz, nola? ‘amorratu da’ edo?*

Amorratu’a, amorratu’a, amorratu duk; amorratu dik.

– *Eta roperoan zer eramaten zuten jateko? migak eta gauza horiek?*

Ez, ez, ez...

25 Galdera hori egitean, 1976an, Otsagabiko Liboria Contin andreari aditua genion *asto* hitza ez zitzaigun burura etorri, baina Labeagaren lanean (1996), gaztelaniaz bada ere, *burro* hitza ikusi dugu tresna hori izendatzeko, «equivale a ropero» oharpenaz osatua.

26 Hori ‘atorra’ ote den ustea dugu.

27 Bitxia *erranko* hori, ohiki aditzen zena *erranen* izatean.

– *Erronkariarrek bai, kallesek bai...*

Eeez! ezetz! migak... gax-, gaxuan zopa, las migas; decían ‘gaxuan zopa’... sopa de sa(r)tén: gaxuan... sop sa(r)tén.

– *Sarten?*

Bueno, nosotros más bien llamamos zart-, zartagia, xartagia, porque había antes un dicho en Otsagabia y una casa que llamaban Markilamé, y «en casa Markilamé, xartagia da lori ta tortillara me»; ya ha entendido ¿no? sartén recio y tortilla delgada, xartagia<sup>28</sup>. Bueno pues, las migas, como le he dicho... ¿cómo le he dicho antes?

– *Gaxuan zopa...*

Gaxuan, gaxian zopa, sopa de sartén. Pero eso, comían mucho los almadieros, pero cuando estaban en el monte, en el monte; en la almadía ¿cómo van a comer las migas?

– *Oihanera-eta, joaten zirenean, orduan...*

Bai, klaro, baëa... ugaldean bai-ta! Pues, tortilla ta... magra, magra bai.

– *Ongi jaten zuten, e?*

Bai, bai, bai, bai, ongi, ongi, ongi; ta... ez solo abäratsek, lerdoian ere bai, xatzen... obeki ezik e...

– *Herrian edo etxean, edo...*

Bai, por ejemplo que los labradores.

– *‘Lerdoia’ da ‘el pinar’, ezta?*

Bai, bai; bueno, lerdoian... asten zen, lanea?... nola erran dut?

– *Argitu gabe?*

A! argitzen zelari(k) ya, ta... bukatzen zen lanea? ya... gabean! etzelaik ikusi. Bueno, pues, kan etzagon kaferik ta txokolaterik eta deus e; en ayunas? lanean e.

– *Baraurik edo?*

Bai, bai, bai; zazpitan? deseinatza; tajada batzuk! ogi, orduan ogi... cabezón, olata puzka kura, xaköa... edeki? ta, xaköa, ‘la bota’, ardoa tundatu, arras, deseinatzeko.

– *(Gaizki ulertuta) Ardoa xuntaturik, e?*

Je! etzen bezte gauzarik!

– *Eta gaua, non igarotzen zuten? bordetan edo?*

Bazen zomait borda urran, urrun... ez!... urran! zomat borda o, cerca, albora; berzañez? txabola bat egin kan, kan txabola... txabola bat eiten zen, laur estakarekin, ta... lerren... –las tajas de la, del pino, no sé cómo será–, con aquello, tapatzen zen? ta... ogatzetako, ezpel... ezpela zen.

– *Bai, badakit zer den, bai: boj.*

Gero, aldamorzatzeko... txula aski izate(n)? ta, tomatereki? ta zomat... zomait aldiz, eiten zen... olio-zopa, sopa de aceite, orio-zopa. Gero, eguerdiköan, aldamorzatic eguerdiala pues borz edo sei edo zazpi tramo egotx; eguerdiköan? pues... erdaraz, kor, uskaraz nola deatzen da alubia?

– *Ilarra? (galdera okerra).*

Ilarra nosotros llamamos al bisalto.

28 Gaztelaniaz eta euskaraz jositako esaldi honek Izaban aspaldi aditu eta, hain juxtu, alderantzizko esanahia duen beste hau dakarkigu gogora: *En casa Esandi ogi txiki* (= gutxi) *eta puzka andi*, etxe horretako jendearen eskuzabaltasuna agerian uzten duena. Beste honakoa ere aditu genuen Izaban berean: *En casa Potxén triste dagona egon deila konten(t)*, kasu honetan etxe horretako jendearen alaitasun ospea darakusena.

– *Orduan ‘alubia’ esango dugu, ez?*

Alubia, y... eta aragi, edo errerik? edo... pataka batzuekin, o arroltzeki, buen-bueno arrantxo allí.

– *Eta xako bat ardo, e?*

A! bai, xako bat... ez! ur edaten tzen, utzi in zen ardua. E! zen lana, zure... lerreko lana zen aniz fuerte, buh!...

– *Behar zuten ongi bazkaldu eta horrekin batera, ba ur gutxi...*

Pro, urak pues, desganatzen zen edo nola da? era trabajo muy fuerte, y si bebían agua pues, perdían fuerza. El vino, pues de momento por lo menos, animaba. Gero... abaldu ta? pueee! akaitrik baia igual dantzan kan, txabolan, tenplatrik! tenplat(r)ik.

– *Aizu, zein dira Zaraitzuko herriak Itzaltzutik hasi eta... Handik ere jaisten ziren almadiak?*

Ez, ez, Ezkarozetik.

– *Otsagabitik ere ez?*

Ez, ez<sup>29</sup>.

– *Eta ibarreko herriak zein dira? badakit zein diren baina nahi dut entzun zuk, euskaraz, nolaz aipatzen dituzun.*

Erriak?

– *Bai; ibarreko herri izenak, bai. Itzaltzutik Otsagabira, ezta?*

Bai.

– *Otsagabia eta gero?*

Ezkaroze, Eaurta –ese no está en el río, e? Jaurrieta–, Orontze, Espartza, Sartze, Ibiz(t)a, Gorza –Güesa–, Igari, Galoxe, Itzalle, Izize ta Uskartze.

– *Eta gero, Ustes? badakit ez dela ibarrekoa baina, euskaraz nola erraten zaio?*

Ustaize, gero Nabazkoze, eta luego... Aspurz, Aizpurgi.

– *Eta Biguezal?*

Bigüézal.

– *Euskaraz nola? ‘Bigozari’ ez duzu aditu?*

Algo parecido sí que es pero no sé si es así.

– *Eta gero, Aizpurzetik behera, nora joaten zen almadiarekin?*

Domeño korrek eztu...

– *Bertze izenik, e?*

Gero, Lumbier? Irunberri, Zangoza, ta ya andik nora? ya eztakit kendik bidea ere.

29 Otsagabiko berriemaile Pedro Juan Zokok zioenez, baina, almadiak bere herritik ere irteten ziren.

## ESPARTZA

Nicolás Elarre Senberoiz, 1902

Gurasoak ere, biak *esparztarrak*

